

# e.a-ri zenbait galdera

par **TXILLARDEGI**

Oker ez banago, hauxe da E.A.-ren mezuaren funtsa : abertzaletasunean, gogor, Euskadi bakarra Euskal Heri osoaren gainean eraikia ; klase-arazoan, berriz, bigunago, "Sozial-demokrata" preseski.

Bego. Sinetsi egingo dugu.

Nik neuk, egia esan, projektu bikoitz horren egian sinesten saiatu naiz : E.A.-ren esanei, eta alderdi horren barruan ditudan lagunei fidaturik.

Hots, E.A.-n sinetsiz gero, segidan pilatzen dira nigan erantzunik gabeko galderak :

1 - Bortizkeriaren kontra agertu da E.A. behin eta berriz. Baina "Gandhiar" borroka aurrera eramateko prest omen dago. Hortaz, nola uler daiteke E.A.-koak oraindik gose-grebarik batere ez egitea ? Nola uler daiteke, bide beretik, bortizkeriaren

aldeko ETA-k jadanik dozenaka eginik izatea gosegreba dramatikoak ?

2 - Honegatik edo hargatik, bai Nafarroan eta bai Vascongadetan hizkuntzaren inguruko sailak P.S.O.E.-ren eskuetan daude. Bestela esanda, euskararen etsai nabarmenen eskuetan. Gauzak horrela, nola uler daiteke E.A., A.E.K.-rekiko uzkur, eta "KORRIKA"-ren aurka agertzea ?

3 - E.E.aren aber tzaletasuna erraustua delarik, nola liteke E.A. abertzalea udaletxeetan aisago elkartzea E.E.-rekin, H.B.-rekin baino ?

4 - E. A. osoki euskaltzalea omen delarik, nola liteke DONOSTIAN (% 49 euskaldun) frankismoaren ondoko lehenengo alkate erdalduna E.A.-koa izatea ?

5 - Nola liteke "GAUR EXPRESS" egunkari berrian (ikus 2.alea) euskarak % 1,78 besterik ez hartzea ?

6 - Nola konpreni daiteke "GAUR EXPRESS" berorren lehenengo alean, ohore hori ongi neurtuz, "Opinion" saila Raul GUERRA GARRIDO, P.S.O.E.-zale eta anti - euskaldun amorratuaren eskuetan uztea ?

7 - Isabel BER- - GARETXE-k argitara berriar duen inkestaren emaitzen arauera (ikus ENBATA 1 071 zb.), H.B.-ren barruan abertzaleak % 66,7 direlarik, E.A.ren barruan % 31,4 baizik ez dira (% 20,2 P.N.V.an). Bide beretik, % 28,6 baizik ez dira autonomistak oro H.B.-ren barruan, E.A.-ren barruan % 58,3 direlarik (% 61,2 P.N.V.an).

Nola uler daiteke hori guztia ?

Ez dakit eta ez dakigu.

## PEILLEN à l'ACADEMIE

■ Les magnifiques salons de l'Hôtel de Ville de BAYONNE ont rarement été si en harmonie avec la riche symbolique de l'acte qu'ils abritaient le Samedi 1er Avril.

Ils servaient en effet d'écrin au plus beau joyau de ce pays, l'euskara, dont les plus talentueux serviteurs intronisaient l'un des leurs au sein de l'Académie de la langue basque : Txomin PEILLEN.

Décidément, le signe premier de l'identité basque fait merveille ces temps-ci en Iparralde où il est demeuré trop longtemps objet de mépris et de répression. Voilà que la docte assemblée, ci-devant Royale, vient de porter à sa Présidence un citoyen "étranger" au Royaume. Pied de nez somptueux chargé de signification, qui ouvre aujourd'hui plus commodément les lourdes portes festonnées de la vénérable bâtisse municipale de Bayonne-Capitale. Portes ouvertes pour

l'adoubement d'un de nos plus fins esprits dont on garde encore en mémoire les écrits parfois provoquants mais toujours spirituels de la Revue "IGELA" réalisée sur stencil tant les faibles moyens de ses animateurs, Txomin PEILLEN et son compère Jon MIRANDE, étaient à la hauteur de leur impertinence et de leur talent.



En occupant à l'EUSKALZAINDIA la place de Piarres LARZABAL, notre regretté collaborateur et responsable de la publication "Enbata", la promotion de Txomin PEILLEN nous touche doublement.

Longue vie littéraire à notre immortel !

## BERTSULARI XAPELKETA

■ Ederki hasia da Naparroa-Iparraldeko bertsularien xapelgoa. Apirilaren 2-an LANDIBARREN kantatu dute Iparraldeko bederatzik, hauetan lehen Heletar MENDIBURU ateratzen zela.

Kanporaketa bigarren saioa LEIZAN iragan da eta han Imanol AROZENA Lesakarra da dener nausitu. Orotarat 26 bertsularik parte hartzen baitute xapelgo hontan, geldiretzen diren zortziek heldu den igandean kantatuko dute SUNBILLAN;

Eta azken haitada aurtengo zortzi hoberenekin iparraldean ukanen dugu, BAIGORRIN hain xuxen ; aspaldiko urtetan bertsu saiorik iragan ez den herrian. BAIGORRI-ko finalean 8 bertsularitarik puntu gehienik ateratzen duten zazpiak onhartuak izanen dira heldu den larrazkenean ospatuko den Euskal Herriko xapelketa nagusirat.

Ikusten den bezala, bertsulariek aspaldi hautsia dute muga izpiritueta, ez baita segur gutiestekoa. Beraz euskalzale gauden abertzale guzkiek oraidanik Martxoaren 23-ko igande aratsaldea beira dezagun BAIGORRI-rat joaiteko.

**Lire ENBATA, c'est bien  
S'abonner, C'EST MIEUX**